

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

LETREN FAKULTATEA



FACULTAD DE LETRAS

Hiketako adizki alokutiboetan gertatzen diren transformazioak iparraldeko autore edota obretan

EGILEA:

Uxo Elustondo Arzallus

Euskal Ikasketen Gradua. 2016-2017 ikasturtea.

TUTOREA

Mikel Martinez Areta

Hizkuntzalaritza eta Euskal ikasketen saila.

LABURPENA

Hiketako adizki alokutiboetan gertatzen diren transformazioak iparraldeko autore edota obretan izeneko Gradu Amaierako Lan (GRAL) honek hiketako forma alokutiboen eraketa eta haien ohiko patroiak ikustea eta deskribatzea du helburu, horretarako iparraldekoko autore eta zenbait obraren gainean egindako edizio kritikoak eta doktore tesi bat oinarri hartuta.

Lehenik lanari sarrera egin, eta ondoren, gure lanaren gaiari oinarri emateko, alokutibotasunak bere baitan duen auziari heldu diogu. Bertan alokutibotasunaren definizioa eskaini dugu, baita alokutibotasuna zertan datzan ere. Forma alokutiboen eraketa nola izaten den azaldu dugu hurrena, eta euskara batuko adizki alokutiboek 5 testuingurutan jasaten duten transformazioen mekanismo orokorra zein den azalduta itxi dugu atala. 5 testuinguru horiek NOR, NOR NORI, NOR NORK eta NOR NORI NORK sailak eta adizki trinkoak dira; gure asmoa corpusaren analisia 5 testuinguru horietan egitea izan da.

Corpusa dator jarraian, eta bertan bildu ditugu Etxeparek *Linguae Vasconum Primitiae*-n dakartzan hiketako adizki alokutiboak, Leizarragak *Testamentu Berrian* agertuak, Etxeberri Ziburukoak *Manual Devotionezcoan* ekarriak, *Kadet eta Bettiriño* obran aurkituak, *Alphonsa Rodriguez Jesusen Compagnhaco Aitaren Guiristinho perfeccioniaren practicaren pparte bat Heuzcarala itçulia, Heuzcara becic eztakitenen daco* itzulpenean jasotakoak eta Oihenarten *Atsotitzak eta Neurtitzak* lanetik bilduak. Autore bakoitzaren obratik jasotako datuak eskaini ditugu ondoren, beraietan ikusitako transformazioen berri eman dugu, eta horietako batzuk patroio orokorretan bildu ditugu.

Lanaren amaieran, ateratako ondorioak, erabilitako laburdurak eta erreferentziak aurkituko ditu irakurleak.

AURKIBIDEA

1. Sarrera	4
2. Alokutibotasunaren auzia	5
2.1. Definizioa.....	5
2.2. Zertan datza alokutibotasuna?.....	5
2.3. Forma alokutiboen eraketa.....	7
2.4. Transformazioen mekanismo orokorra.....	7
3. Datuen Corpusa	9
3.1. Bernard Etxepare.....	9
3.1.1. Adizki laguntzaileak.....	9
3.1.1.1. NOR saileko adizkiak.....	9
3.1.1.2. NOR NORK saileko adizkiak.....	9
3.1.2. Adizki trinkoak.....	9
3.1.3. Etxepareren adizki alokutiboetan gertatzen diren transformazioak.....	9
3.2. Ioanes Leizarraga.....	10
3.2.1. Adizki laguntzaileak.....	10
3.2.1.1. NOR saileko adizkiak.....	10
3.2.1.1.1. <i>Izan</i> adizkiak.....	10
3.2.1.1.2. <i>*edin</i> adizkiak.....	10
3.2.1.2. NOR NORI saileko adizkiak.....	11
3.2.1.3. NOR NORK saileko adizkiak.....	11
3.2.1.3.1. <i>*edun</i> adizkiak.....	11
3.2.1.3.2. <i>*ezan</i> adizkiak.....	12
3.2.1.4. NOR NORI NORK saileko adizkiak.....	12
3.2.1.4.1. <i>*eradun</i> adizkiak.....	12
3.2.1.4.2. <i>*ezan</i> adizkiak.....	12
3.2.2. Adizki trinkoak.....	13
3.2.3. Leizarragaren adizki alokutiboetan gertatzen diren transformazioak.....	14
3.3. Etxeberri Ziburukoa.....	17
3.3.1. Adizki laguntzaileak.....	17
3.3.1.1. NOR saileko adizkiak.....	17
3.3.1.2. NOR NORI saileko adizkiak.....	17
3.3.1.3. NOR NORK saileko adizkiak.....	17
3.3.1.3.1. <i>*edun</i> adizkiak.....	17
3.3.1.3.2. <i>*iron</i> adizkiak.....	18
3.3.1.4. NOR NORI NORK saileko adizkiak.....	18
3.3.1.4.1. <i>-i-</i> adizkiak.....	18
3.3.1.4.2. <i>*ezan</i> adizkiak.....	18
3.3.2. Adizki trinkoak.....	18
3.3.3. Etxeberri Ziburukoaren adizki alokutiboetan gertatzen diren transformazioak... 18	
3.4. <i>Kadet eta Bettiriño</i>	20

3.4.1. Adizki laguntzaileak.....	20
3.4.1.1. NOR saileko adizkiak.....	20
3.4.1.2. NOR NORI saileko adizkiak.....	20
3.4.1.3. NOR NORK saileko adizkiak.....	20
3.4.1.4. NOR NORI NORK saileko dizkiak.....	21
3.4.2. Adizki trinkoak.....	21
3.4.3. <i>Kadet eta Bettiriño</i> -ko adizki alokutiboetan gertatzen diren transformazioak.....	21
3.5. <i>Alphonsa Rodriguez</i>	24
3.5.1. Adizki laguntzaileak.....	24
3.5.1.1. NOR saileko adizkiak.....	24
3.5.1.2. NOR NORK saileko adizkiak.....	24
3.5.2. <i>Alphonsa Rodriguez</i> ...-eko adizki alokutiboetan getatzen diren transformazioak.....	25
3.6. Arnaud Oihenart.....	25
3.6.1. Adizki laguntzaileak.....	25
3.6.1.1. NOR saileko adizkiak.....	25
3.6.1.2. NOR NORK saileko adizkiak.....	25
3.6.2. Adizki trinkoak.....	26
3.6.3. Oihenarten adizki alokutiboetan gertatzen diren transformazioak.....	26
4. Ondorioak.....	27
Laburdurak.....	31
Erreferentziak.....	32

1. Sarrera

Lan honen helburua hiketako forma alokutiboen eraketa eta haien ohiko patroiak ikustea eta deskribatzea da, eta, ahal den neurrian, baita azaltzea ere.

Alokutibotasuna gramatikari batek baino gehiagok euskal aditz-sisteman azpimarratu duten berezitasuna da; izan ere, solaskidea izenordain moduan (*datibo etiko* deritzanak) sartzen duten hizkuntzak badiren arren (Azkarate & Altuna 2001: 223), tratamendu hori erabiltzeak ez dakar entzulearen txertaketa derrigorrezkoa izatea, perpausa gramatikala izango bada. Aldiz, euskaraz alokutiboaren erabilera eskatzen duten tratamenduetan entzulearen marka aditzean txertatzea derrigorrezkoa da perpausa gramatikala izateko. Gainera, Europan ez da beste hizkuntzarik entzulea aditzean txertatzen duenik. Bakarra izateak xarma berezia ematen badio ere, euskaldunentzat entzuleak noizbait ezin utzizko garrantzia zuela ere iradokitzen digu, hain zuzen, hitz egiten zuten hizkuntzan gramatikalizatzerainokoa. Ez ote mintzalagun hurkoarekiko begirune edota gizatasunaren adierazle? Hori horrela izan edo ez, argi dagoena da hizkuntzaren ezaugarri bihurtu zela noizbait, gaur egun hainbat tokitan erabiltzeari utzi bazaio ere. Horregatik, besteak beste, testu zaharretara jo beharra dugu ezinbestean aztarnarik zaharrenak aurkitzeko edo gaur arte bizirik iritsi ez diren alokutiboko formak kausitzeko.

Halere, oztopoak izan ere izan ditugu; euskal tradizio idatziak defektibotasun geografikoa du, hots, ez da hasieratik lekukotzen toki eta garai guztietan; euskal corpusa homogeneoa ere bada, hau da, genero aldetik lan gehienak erlijiozkoak dira. Hori horrela, forma alokutiboak gutxi lekukotzen dira, eta agertzen direnean ere sail guztietako adizkiak ez ditugu topatzen. Gainera, oztopo horiei ekialde muturreko euskalkiek duten beste arazo bat gehitu behar zaie; izan ere, bertako euskalkietan hainbatetan datibo komunztadura ez da adizkian markatzen, eta NNN saileko indikatiboko nahiz ez indikatiboko aditz laguntzaileak urri lekukotzea dakar. Hori guztia kontuan izanik, ez ditugu forma alokutiboak oro har nahi beste topatu, eta ondorioz, alde handiak daude autore edo obra batetik bestera hiketako forma alokutiboen kopuruari dagokionez. Horrek, noski, gure lanean eragina izan du.

Lehenik, alokutibotasunaren auzia zertan den azalduko dugu, ondoren datorren corpusean agertuko diren transformazioei oinarria emateko. Corpusa osatuko dugu iparraldeko autore edo obretan (Bernard Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae*, Leizarragaren *Testamentu Berria*, Etxeberri Ziburukoaren *Manual Devotionezcoa*, *Kadet eta Bettiriño*, Ibarreko parroko zen Lopez-i egozten zaion *Alphonsa Rodriguez Jesusen Compagnhaco Aitaren Guiristinho perfeccioniaren praticaren pparte bat Heuzcarala*

itçulia, Heuzcara beçic eztakitenen daco itzulpena eta Oihenarten *Atsotitzak eta Neurtitzak*) lekukotzen diren hainbat forma alokutiborekin, horien ezkerrean forma ez-eratorria emanek (baldin testuak badakar, edo aurkitu badugu; ez badugu aurkitzen, parentesi artean ezarriko dugu) eta eskuinean euskara batuko forma alokutiboa eskainiz. Datuak erakutsi ondoren, forma ez-eratorritik eratorrira ikusi ditugun transformazioak agertuko ditugu, eta azkenik, ateratako zenbait ondorio plazaratuko ditugu.

Euskararen historia argitzen joateko urrats xume bezain beharrezkoak izan bitez lan honetan agertuak.

2. Alokutibotasunaren auzia

2.1. Definizioa

Aditzak adierazten duen errealitate jakin batean mintzalagunak zerikusi zuzenik ez duenean, hitz bidezko komunikaziora mintzalaguna morfologikoki barreneratzea da gertaera alokutiboaren muina. Adizkiak lehen, hirugarren edota lehen eta hirugarren pertsonen errealitatea adierazten badu ere, mintzalaguna adizkira ekartzea -bigarren pertsonaren morfema eranstea- da trataera alokutiboa. Historikoki Euskal Herri guztian hiketan egin izan da eta jokaera alokutiboa da hau: *ni neroni naun* esatean bigarren pertsonak ez du aditzak adierazten duen errealitatean zeregin zuzenik, baina haren morfema femeninoa adizkian ageri da (Camino 2013: 137). Hiketa tratamenduak nahiz euskarak edo euskalkiek dituzten beste zenbait tratamenduk (zuketak eta xuketak) ere alokutiboa erabiltzea eskatzen dute.

2.2. Zertan datza alokutibotasuna?

Aipatu bezala hiketan Euskal Herri guztian egin da, baina haren erabilera apalduz joan da historian zehar, bizkorrago edo motelago euskalkiaren arabera. Galerarik handiena, hala ere, azken hamarkadetan jazo omen da (Ariztimuño 2013: 400-401).

Hala eta guztiz ere, ez dute euskalki guztiek galdu hitanoaren erabilera, eta euskalki batzuetan oparo hitz egiten da oraindik ere, emakume eta gizonaen artean ezberdintasun batzuk badauden arren (Ariztimuño 2013: 401). Hiketa erabiltzeak berdintasuna edo hurbiltasuna adierazten du (Camino 2013: 137), eta lagunarteko eta familia erregistroari dagokio (Alberdi 1995: 282).

Ingurune sintaktikoaren aldetik, berriz, ez da ohikoa alokutiboa erabiltzea ondoko perpausetan (Ariztimuño 2013: 399-400):

a) Galdera eta harridura perpausetan:

(1) a. *Zer du (**dik/n) horrek?*

b. *Itsusia da (**duk/n) gero!*

b) Mendeko perpausetan, *-(e)n, -(e)la, bait-, ba-*ren bitartez eratzten direnetan:

(2) a. *Esan dik/n berdin zaiola (**zai(n)ala)*

b. *Lana hobeto dagiten (**zagite(n)an) nahi di(n)agu*

c) Subjuntiboaren bidez eraturiko exhortatiboazko formetan:

(3) a. *Haien bila goazen (**goaza(n)an) eskatu ziguk/n*

b. *Gabon gaua pozik igaro dezagun (**dezagu(n)an)*

d) Hirugarren pertsonako aginte formetan, jusiboetan, hain zuzen:

(4) a. *Betor! (**Betorrek/n!)*

b. *Dakarrela! (**Zakarre(n)ala!)*

Eta zer dela eta mugatu zen tratamendu honen erabilera? Europa mendebaldeko hainbat hizkuntzatan eta Hego Ameriketako beste zenbait lurraldetan gertatu zen bezala, euskaraz ere jatorriz plurala zen bigarren pertsona izenordaina (*zu*) errespetua adierazteko izenordain singular gisa erabiltzeak eragin zuen erregistro familiarrekoa zen bigarren pertsona singularreko izenordainaren (*hi*) mugatzea. Hau da, lehenik *hi* eta *zu* banaketa osagarrian zeuden, baina denborak aurrera egin ahala *zu* sg. errespetuzko izenordain bilakatu zen, eta *hi* lagunarteko edo antzeko testuinguruetara mugatu zen (eta garai modernoetan baita eskualde batzuetan *hi* desagertu ere). *Zu*-ren aldaketa semantikoa (pl. → sg. erresp.) konpentsatzeko bigarren pertsona plural berria sortu zen (*zuek*). Bestalde, begirunezko erregistroarako *berori* (< **ber hori*) ere eratu zen, zeina hirugarren pertsonarekin bat datorren (gaztelaniazko *usted*-en pareko). Hala ere, belaunaldi gazteen artean galdu egin da (Aritzimuño 2013: 401).

Bestalde, hiketaz gain, euskaraz zuketa (*zu*) eta xuketa (*xu*, *zu*-ren txikigarri edo goxagarri) trataera alokutiboak daudela ere aipatu da. Horiek ekialde muturreko euskalkietan erabiltzen dira. Zuketa erabiltzen da (edo erabili zen, hauetako aldaera zenbait galdu egin baitzen) Zuberoan, Baxenabarreko ekialdean eta Nafarroa Garaiko Zaraitzu eta Erronkari haranetan. Xuketa, ostera, lurralde horietako iparraldera mugatuago dago, Baxenabarrerra eta Zaraitzura, hain zuzen (*ibid.*). Horien erabilerari dagokionez, zuketa kortesiazkoa edo begirunea adierazteko zatekeen sorrera garaian, baina aldatuz joan dateke gero beraren erabilera pragmatikoa. Xuketan, ostera, gozotasuna adierazteko egiten zaie zaharrei, haurrei eta bi adiskide minek elkarren artean ere xuketan egiten dute. Dena den, lagun bati edo haur bati xuketan egiteko eta beste bati ez egiteko arrazoiak guztiz bereziak eta pertsonalak izaten dira (Camino 2013: 137-138).

Euskarazko tratamendu alokutiboak, hortaz, hiru badira ere, eta hirurek solaskidea barreneratzen duten aditz formak eskaintzen badituzte ere, bada oraindik agertu ez den eta hiketako tratamenduak soilik duen beste ezaugarri bereizgarri bat. Hiketako tratamenduak bi generolekto ditu, hau da, hi argumentuaren edo entzulearen generoa adierazten da *-k* edo *-a-* (gizonezkoa) eta *-n* edo *-na-* (emakumezkoa) marken bitartez. Trask-ek bere aldetik **-ga* eta **-na* gisa berreraikitzen ditu (1997: 234) gizonezko eta emakumezko markak, hurrenez hurren. Are, marka alokutiboak beti azaleratzen du entzulearen generoa; 2. pertsona sg.eko argumentuarenak, aldiz, aurrizki baten bidez adierazten denean ez du generoa adierazten, baina gainerako kasuetan bai:

a) Hi argumentudun adibideak:

(5) a. *Hi euskalduna haiz.*

b. *Eramango haut lantokira.*

c. *Etxera joan behar duk/n berandu baino lehen.*

d. *Biharko ekarriko dia/nat hire liburua.*

b) Marka alokutibodun adibideak:

(6) a. *Ni euskalduna nauk/n.*

b. *Gaur lan asko egin diat/nat nik.*

c. *Bazeukeat/kanat gogoia hi ikusteko.*

d. *Ondo zagok/n dagoen bezala.*

2.3. Forma alokutiboen eraketa

Forma alokutiboak eratzeko batzuetan transformazio bat edo gehiago jasaten du aditz jokatuak forma ez-eratorritik forma alokutibora igarotzean (ikus (7)); beste batzuetan, ordea, ez dago transformaziorik, eta aurrez aipatu den entzulearen marka (marka alokutibo deritzaguna) txertatzea da gertatzen den aldaketa bakarra (ikus (8)):

(7) *naiz* → *nauk/n*

(8) *zaio* → *zaiok/n*

2.4. Transformazioen mekanismo orokorra

Euskal Herri osoan erabili izan den tratamendu alokutibo bakarra hiketa dela kontuan izanik, honako transformazio hauek ikusten ditugu sail bakoitzean batueran gertatzen dena patroitzat hartuta:

NOR saila. $N \rightarrow NN$ (ikus (9)). Transformazio horren berri Ros-ek ere ematen du (1986: 9), eta Trask-ek ere aipatzen du *izan* adizkien forma alokutiboak **edun* erroarekin

egiten direla (1997: 235). Hau da, *izan* adizkiaren forma alokutiboak **edun* adizkiaren berdinak dira orainaldian; lehenaldian eta irrealisean, berriz, badaude aldeak (Alberdi 1995: 283). Izan ere, orainaldiko N saileko adizki alokutiboetan entzulearen marka denak NN saileko ergatibo argumentuaren forma bera du, eta N saileko ekintzaren argumentua den absolutiboak NN saileko absolutiboarena. Modu horretan forma homofonoak sortzen dira, (9) adibideetan ikus daitekeen bezala. Baina indikatiboko iraganaldian eta irrealiseko forma alokutiboetan absolutiboa 3. pertsonakoa denean NN saileko ergatiboa litzatekeena ez da aditz hasierara igarotzen, eta N saileko entzule marka erroaren ondoren mantentzen da (ikus (10)). Bestalde, irrealiseko zenbait aldaeratan ez da $N \rightarrow NN$ transformazioa gertatzen, eta entzulearen marka soilik atxikitzen zaio aditz amaieran ekintzaren argumentu bakarra duen formari (ikus (11)).

(9) a. gara \rightarrow *gaituk/gaitun*

b. ginen \rightarrow *gintuan/gintunan*

c. nintzateke \rightarrow *nindukek/ninduken* (*nintzatekek/nintzateken* ere badiren arren)

(10) zen \rightarrow *zuan/zunan*; ziren \rightarrow *zitian/zitunan*.

(11) litzateke \rightarrow *lukek/luken* edo *litzatekek/litzateken*.

Rebuschiren ustetan (*apud* Alberdi 1995: 284), *zuan/zunan* gisako formak berezi dira eta analogiari edo beste zenbait arrazoiren ondorio dira. Schuchardt-ek (1893: 239), ostera, *(*h*)*ukan* ikusten du *zuan*-en oinarrian, eta *zen* adizkiak eragiten du hasierako *z*- horretan.

NOR NORI saila. Ez dago transformaziorik marka alokutiboaren txertaketaz haraindi (*natzaio* \rightarrow *natzaiok/n*).

NOR NORK saila. Errozko -u- \rightarrow -i- (*dute* \rightarrow *ditek/diten*). Trask-en arabera (1997: 235), -i- hori erdialdeko euskalkietako NNN saileko erroaren elementu bera litzateke, eta *-gi- “dative flag” delakoaren oinarrian egon liteke (*zait*, *diezaion*, *datorkio*, *dakioke*...). Ildo bertsutik, Lakarraren (2008: 482-483) arabera, -i(n) ‘eman’ aditz trinkoa izan liteke erro beraren jatorria. Bestalde, -u- \rightarrow -i- transformazioak batzuetan homofoniak sortzen ditu NNN sailekoekin (*dut* \rightarrow *diat/dinat*), baina ez beti: *dute* \rightarrow *ditek/diten*.

NOR NORI NORK saila. a) d- \rightarrow z- (*diot* \rightarrow *zioat/nat*); b) d-z hasten ez denean, hots, lehenaldi eta irrealisean ez da transformaziorik gertatzen (*genizkien* \rightarrow *genizkiean/nan*).

Aditz trinkoak. a) d- \rightarrow z- (*dago* \rightarrow *zagok/n*); b) beste guztietan, hau da, adizkia d-z hasten ez bada, transformaziorik ez (*nator* \rightarrow *natorrek/n*, *gabiltza* \rightarrow *gabiltzak/n*).

Gure asmoa corpusaren analisisia 5 testuinguru horietan egitea izango da, hau da, gertatzen diren transformazioak ikustea iparraldeko 6 autore edota obratako hiketako alokutiboko adizkietan.

3. Datuen Corpusa

3.1. Bernard Etxepare

3.1.1. Adizki laguntzaileak

3.1.1.1. NOR saileko adizkiak

eniz → *enuk*, ‘ez nauk’.

gira → *gituk*, ‘gaituk’.

zen → *zuian*, ‘zuan’.

3.1.1.2. NOR NORK saileko adizkiak

dut → *diat*, ‘diat’.

du → *dik*, ‘dik’.

eztu → *eztik*, ‘ez dik’.

dute → *die*, ‘ditek’.

nuke → *nikek*, ‘nikek’.

3.1.2. Adizki trinkoak

EGON:

dago → *diagok*, ‘zagok’.

EDUKI:

(ez dadukat) → *eztiadukat*, ‘ez zaukeat’.

JAKIN:

(badakit) → *baziakiat*, ‘bazakiat’.

3.1.3. Etxepareren adizki alokutiboetan gertatzen diren transformazioak

Adizki laguntzaile nahiz trinko guztiei erreparatuz gero honakoak dira adizki alokutiboetan antzeman daitezkeen eratorpenak: N saileko adizki alokutibo guztiak NN saileko bihurtu dira $N \rightarrow NN$ transformazioaren bidez (esaterako, *gira \rightarrow gituk*), alegia, batueraz eta euskalki guztietan gertatzen den bezala. NN sailekoek ere batueraren transformazio berbera pairatu dute, hau da, errozko -u- \rightarrow -i- transformazioa (adibidez, *dut \rightarrow diat*). Baina alde txikirik ere badago batuerarekin erkatzen bada. Izan ere, ergatiboa hirugarren pertsona pluralekoa denean alokutiboaren pluralgilea -e dela ikus daiteke, eta

alokutiboaren markarik ez da ageri (*die*). Batueraz eta forma ez-eratorrian, berriz, pluralgilea *-te* da eta gizonezko entzulearen marka, aldiz, *-k*.

Adizki trinkoei dagokienez, dauden adibide apurrek desberdintasunak erakusten dituzte batua kontuan hartzen bada. Izan ere, hiru adizkiei tartekatu zaie *-y-* lehen silaban, hau da, *dV-* → *dyV-* transformazioa gertatu da *egon* eta *eduki* adizkietan (*diagok* eta *eziadukat*, hurrenez hurren), eta *jakin* erroko forma ez eratorriko *d-* → *z-* bihurtu bada ere batuan bezala, *dV-* → *zyV-* transformazioa (*baziakiat*) ere gertatu dela esango genuke *jakin* adizkian, transformazio zurrak jakiteko guztietarako forma ez-eratorriak falta bazaizkigu ere. Altuna (1980: 222-223) *eduki* eta *jakin* aditzen arteko desberdintasuna azaltzen ahalegintzen da, hau da, zergatik ez den *ziadukat baziakiat* bezala *diadukat* beharrean. Bada *dut* –en hiketako eratorpen alokutiboa *diat* den bezala, eta ez *ziat*, *dadukat* –en hikako eratorpena ere *diadukat* dela dio Altunak *ziadukat* beharrean.

3.2. Ioanes Leizarraga

3.2.1. Adizki laguntzaileak

3.2.1.1. NOR saileko adizkiak

3.2.1.1.1. Izan adizkiak

naiz → *nauk/naun*, ‘nauk/naun’.

da → *duk/dun*, ‘duk/dun’.

gara, garade → *gaituk*, ‘gaituk’.

dira, dirade → *dituk/ditun*, ‘dituk/ditun’.

nenzen, ninzen → *ninduan*, ‘ninduan’.

zen → *zuan*, ‘zuan’.

genen, ginen, ginaden → *gentuan*, ‘gintuan’.

ziraden → *zituan*, ‘zituan’.

date(ke) → *datek, dukek*, ‘datekek, dukek’.

dirate(ke) → *diratek*, ‘diratekek, dituzkek’.

lizate(ke) → *lukek*, ‘lukek, litzatekek’.

3.2.1.1.2. *edin adizkiak

naite → *niaitek*, ‘naitekek’.

daitezke, ditezke → *daitezkek*, ‘daitezkek’.

litake, litezke → *litezkek*, ‘litezkek’.

zaten, zateke(e)n → *zatean, zukean*, ‘zatekean’.

zedin → *zidian, ziedian*¹.

zeiten, zaiten, zaitekeen → *zieitean*, ‘zitekean’.

3.2.1.2. NOR NORI saileko adizkiak

zait, zaitat → *ziataidak*, ‘zaidak’.

zaio → *ziaiok/ziaion*, ‘zaiok/zaion’.

zaizu, daizu → *ziaizuk*, ‘zaiguk’.

zaizkigu → *ziaizkiguk*, ‘zaizkiguk’.

zaie, daie → *ziaiek*, ‘zaiek’.

zaizte → *ziaiztek*, ‘zaizkiek’.

natzaio → *natzaiok, nitzaiok*, ‘natzaiok’.

natzaie → *nitziaiek*, ‘natzaiek’.

gaitzaitza, gaizkio, giaizkio → *giaizkiok*, ‘gaitzaitzkiok’.

gaitzaizte, gitzaizte → *gaitzeiztek*, ‘gaitzaitzkiek’.

3.2.1.3. NOR NORK saileko adizkiak

3.2.1.3.1. *edun adizkiak

dut → *diat/dinat*, ‘diat, dinat’.

ditut → *ditiat, zitiat*, ‘ditiat’.

du → *dik/din*, ‘duk, din’.

gaitu → *gaitik*, ‘gaitik’.

ditu → *ditik, zitik*, ‘ditik’.

dugu → *diagu/dinagu*, ‘diagu, dinagu’.

ditugu → *ditiagu, zitiagu*, ‘ditiagu’.

dute → *die/ dine*, ‘ditek/diten’.

dituzte → *ditie/zitie*, ‘ditiztek’.

nuen → *nian*, ‘nian’.

zuen → *zian*, ‘zian’.

genduen → *gendian*, ‘genian’.

nituen → *nitian*, ‘nitian’.

zituen → *zitian*, ‘zitian’.

¹ Batueraz **edin* eta **ezan* erroen bidez eraturiko atzizkirik gabeko adizkiak beti dira subjuntiboak (menpeko perpausetakoak, beraz). Horregatik horiek ez dute sekula izango alokutiborik. Baina Leizarragan perpaus nagusietako aoristoak era ditzakete, eta horietan aldaera alokutiboak ager daitezke.

zituzten → *zitiztean*, ‘zitiztean’.
nuke → *nikek*, ‘nikek’.
luke → *likek*, ‘likek’.
lukeite → *likeie*, ‘liketek’.
genduke → *gendikek*, ‘genikek’.
dukeite → *dikee*, ‘diketek’.

3.2.1.3.2. *ezan adizkiak

dezake → *zezakek*, ‘zezakek’.
dezakegu → *dezakeagu/zezakeagu*, ‘zezakeagu’.
ditzake → *zitzakek*, ‘zitzakek’.
ditzakizte → *zitzakee*, ‘zitzaketek’.

3.2.1.4. NOR NORI NORK saileko adizkiak

3.2.1.4.1. *eradun adizkiak

draukat → *diarokat*, ‘zioat’.
drauet → *diraueat*, ‘zieat’.
draut → *dirautak*, ‘zidak’.
drauka → *diraukak/diraukan*, ‘ziok’.
drauku → *diraukuk*, ‘ziguk’.
draue → *dirauek*, ‘ziek’.
draukagu → *diraukagu*, ‘zioagu’.
drauegu → *diraueagu*, ‘zieagu’.
draukate → *diarokoe/diraukoe*, ‘ziotek’
drautzat, drauzkiot → *dirautzat*, ‘zizkioat’.
drauztet → *dirauzteat/diraizteat*, ‘zizkieat’.
drauzkigu → *dirauzkiguk*, ‘zizkiguk’.
drauzte → *diraueze*, ‘zizkietek’.

3.2.1.4.2. *ezan adizkiak

niezon → *niezoan*.
ziezadan → *ziezadan (ziezadán)*.
ziezon, ziezoion → *ziezoan*.
ziezen → *ziezean*.

3.2.2. Adizki trinkoak

*-IO-:

diot → *zioat*, ‘zioat’.

dio → *ziok*, ‘ziok’.

dioite → *zioe*, ‘ziotek’.

JAKIN:

dakit → *zeakiat/zeakinat*, ‘zekiat/zekinat’.

dakizkit → *zeakizkiat*, ‘zakizkiat’.

daki → *zeakik*, ‘zekik’.

dakizki → *zeakizkik*, ‘zakizkik’.

dakigu → *ze(a)kiagu/zeakinagu*, ‘zekiagu/zekinagu’.

dakite → *zeakie, ziakie*, ‘zakitek’.

IKUSI:

dakusat → *diakusat*, ‘zakusaat’.

dakusagu → *diakusagu/deakusagu*, ‘zakusaagu’.

(dakuskit) → *diakuskiat*, ‘zakuskiat’.

IBILI:

dabiltza → *diabiltzak*, ‘zabiltzak’.

(ginabiltzan) → *giniabiltzan*, ‘genbiltzaan’.

ETZAN:

datza → *diatzak*, ‘zatzak’.

JARIO:

dario → *diariok*, ‘zariok’.

JOAN:

noa → *nihook*, ‘noak’.

doa → *dihook*, ‘zoak’.

goaz → *gi(h)oazak*, ‘goazak’.

doaza/doaz → *di(h)oazak*, ‘doazak’.

*-IDI-:

(ginaidike) → *ginaidikek*, ‘genegikek’.

IRAUN:

draunsa → *diraunsak*, ‘*erausten ziok’.

IRITZI:

(dariztet) → *diarizteat*, ‘zeritzeat’.

EGON:

nago → *niagok*, ‘nagok’.

dago → *dia(g)ok/diagon*, ‘zagok/zagon’.

gaude(z) → *giaudek*, ‘gaudek’.

daude(z) → *diaudek*, ‘zaudek’.

daut → *diagotak*, ‘zagokidak’.

nengoen → *niangoán*, ‘nengoan’.

ETORRI:

natorke → *niatorkek*, ‘natorkek’.

3.2.3. Leizarragaren adizki alokutiboetan gertatzen diren transformazioak

Aditz laguntzaileetatik hasirik, eta horietan lehenik N sailekoei heldurik, *izan* adizkietan, Etxepareren adizkietan bezala, $N \rightarrow NN$ transformazioa gertatzen da (naiz → *nauk/naun* kasu), nahiz eta *zuan* eta *zitan* forma alokutiboek ez izan NN saileko adizkide homofonorik. Horiek erakusten digutena da lehenaldian NN sailean absolutiboa hirugarren pertsonakoa denean ergatiboak adizkian hartzen duen lehen hutsunea ez dela forma alokutiboekin gertatzen, eta entzulearen markak loturazko bokalaren hutsunea ere betetzen duela. Horrez gain, ahaleran *date(ke)*-ren alokutibozko eratorpenak *datek* zein *dukek* dira, eta aldaera horiek erakusten dutena interesgarri da; izan ere, orainaldi eta lehenaldi arruntean bezala $N \rightarrow NN$ transformazioa egiten da aldaera batean (*dukek*), baina bestean (*datek*) marka alokutiboaren txertaketaz gain ez dago beste transformaziorik. Beste eratorpen batek, *dirate(ke) \rightarrow diratek*-ek, ere ez du $N \rightarrow NN$ transformaziorik erakusten.

**edin* adizkietan, berriz, ez dago $N \rightarrow NN$ transformaziorik, eta mintzalagunari dagokion *-k* zein *-a-* marka soilik da alokutiboaren adierazle, nahiz eta kasu pare batean $nV- \rightarrow nyV-$ (naite → *niaitek*) eta $zV- \rightarrow zyV-$ (zeiten, zaiten, zaitekeen → *zieitean*) ere lekukotu zaizkigun. Horiek $CV- \rightarrow CyV-$ transformazioaren islapen izan daitezke. Bestalde, *zidian* forma alokutiboan ere $zV- \rightarrow zyV-$ prozesua dugu, hau da, $CV- \rightarrow CyV-$ transformazioaren beste bertsio bat *z-z* hasitako kasuetara zabaldua, Zulaikak dioena kontuan hartzen bada. Izan ere, Zulaikaren hitzetan (1998: 605), adizki horretan *e* bokalaren galera ikusten du Schuchardtek. Horrez gain, ikus daiteke *zedin* bezalako formek batueraz ez bezala badutela aldaera alokutiboa (*zidian*, *ziedian*), Leizarragak perpaus nagusiak era baititzake **edin* adizkiekin, aoristo perifrastikoak, hain zuzen.

NNi saileko adizki alokutiboetan ere $zV- \rightarrow zyV-$ (zaio → *zaiok/ziaion*, esaterako) prozesua gertatzen da, hau da, $CV- \rightarrow CyV-$ transformazioa, baina ez beti: *natzaiok*, *nitzaiok*

aldaera alokutiboak daude, hau da, transformazio gabea, baina -a- → -i- transformazioduna ere bai. Berriz, honako honetan lehen silaban transformazio hori gertatzeaz gain, aldi berean bigarren silaban -y- ageri da, hots, transformazio bikoitza edo pleonastikoa nolabait: *nitziaiek*. Horrek iradokitzen du CV- → CyV- transformazioa oso fase dinamikoan dagoela, beste testuiguru batzuetara, kasu horretan bigarren silabara ere -y- hedatu delako. Bestalde, ezin esan gV- → gyV- transformazioa gertatzen denik, ez bada behintzat gaizkio → *giaizkiok* kontuan hartzen; izan ere, aipagarri da azken aldaera alokutibo horren forma ez eratorrietako batek ere -y- izatea lehen silaban: *giaizkio*. Eta *gaitzeaitzek* aditzean, ostera, gaitzV- → gaitzeV- transformazioa gertatu da.

NN saileko adizkiei heldurik, Etxeparerekin agertu dugun gisan, errozko -u- → -i- transformazioa gertatzen dela ikus daiteke **edun* adizkietan, baita hirugarren pertsona ergatiboko pluralgilea -e egin ere. Are, Etxeparek ez dakartzan *ditie* nahiz *zitie* aldaeretan, *dikee*, *likeie* eta *zitzakee* adizki alokutiboetan ere Leizarragak -e pluralgilea egiten du, eta horietan ere entzuleari dagokion marka falta dela antzeman daiteke. Hala ere, adizki alokutibo batean -te pluralgilea eta mintzalagunari dagokion morfema ere ageri dira: *zitziztean*. Horretaz gain, eta *ditie* eta *zitie* adizkiak berriz aipaturik, horien forma ez-eratorria (*dituzte*) aintzat hartzen bada, ikus daiteke d- → z- transformazioa gertatu dela aldaera batean, eta bestean d-ri eutsi zaiola. Aipatu berri den transformazio hori birkarakteritzailea da, transformazio hori gabe ere, -u- → -i- badagoelako. Hori ikusita, badirudi zenbaitetan Leizarraga ez dela -u- → -i- transformazioarekin pozik geratzen, eta hori indartzeko beharra sentitu eta d- → z- egiten duela. Baina transformazio hori ez da sistematikoa ikus daitekeenez, eta Zulaikak aipatzen duen bezala (1998: 604), NN saileko **edun* erroko eta indikatiboko hiru adizkietan gertatzen da d- → z- transformazio birkarakterizatzailea, baina hiru horiek transformaziorik gabeko aldaera ere badute: *ditiat/zitiat*, *ditik/zitik* eta *ditiagu/zitiagu*. **ezan* erroko adizkietan, ostera, bakarra da alokutiboan d-dun aldaera duena (*ibid.*), hain zuzen, *dezakegu*-ren *dezakeagu* forma alokutiboa, baina horrek ere, era berean *zezakeagu* aldaera ere badu. Gainerako **ezan* erroko adizki alokutiboak z-dunak direla ikus daiteke (*zezakek*, *zitzakek* eta *zitzakee*). Baliteke **edun* adizkietako forma alokutiboen analogiaren eraginez izatea d-dun aldaera, ez bada behintzat, d- → z- transformazioa **ezan* adizkietan lehenago gertatutako berrikuntza.

Sail honekin amaitzeko, adizki batean lehen silaban -y- ageri da: *gaitik*. “De *gaitu* debía derivarse **ga-it-u-i-k*, que llegó a **ga-it-i-uk* y repitiendo la *i*: **g-i-ait-i-u-k*, luego transformándose *iu* en *i* (como en *dik* > **d-i-u-k*) y no en *ia*: **g-i-ait-i-k* (así en L.)” (Schuchardt *apud* Zulaika 1998: 607). Zulaikak gaineratzen du (*ibid.*) edizioaren

prestatzaileak ohartarazten duela Schuchardtek < eta > zeinuak ohiko moduan ez, baizik alderantziz erabiltzen zituela. Dena den, Schuchardt-en azalpena gaindituta dago, egun. Aurrez aipatu bezala, Leizarragak -u- → -i- transformazioa indartzeko beharra sentitzen du batzuetan. Baina berrindartzeko edo birkarakterizatzeko modua adizkiaren egitura fonetikoaren menpe dago: *di*-z hasitakoetan CV- → CyV- transformazioa ez da bideragarria, eta d- → z- prozesura jotzen du. Aldiz, *gaitik* bezalako batean d- → z- gauzatu ezina da, CV- → CyV-, ordea, bai.

NNN saileko **eradun* adizkietan bereizgarri da dr- → dir- transformazioa (drauet → *diraueat*), baina pare bat kasutan dr- → dia- transformazioa ere lekukotzen da, draukat → *diarokat* eta draukate → *diarokoe/diraukoe* eratorpenek erakusten dutenez. Gainera, dr- → dia- transformazio hori gertatzean, ondoko -au- diptongoa -o-*ra* monoptongatzen da. Badirudi *dia*- CV- → CyV- transformazioaren gauzatze bat dela, baina berez *die*- espero genuke, garaiko lapurteraz *derau* forma baitute adizkiek. *Dir*- formek, berriz, *diar*- formen errazte antzeko bat ematen dute. Bestalde, sail honetan ere hirugarren pertsona pluraleko ergatiboko -e pluralgilearen adibideak badaude: *diarokoe/diraukoe* eta *diraueze*. Hiru adizki horietan alokutibo markaren falta ere antzeman daiteke, baina ergatiboa hirugarren pertsona pluralekoa ez den adizkietan ere topatu dugu mintzalagunaren markaren falta, *diarokat* eta *diraukagu* adizkietan, hain zuzen. Bestalde, **ezan* adizkietan ez da transformaziorik gertatzen (niezon → *niezoan*), hitz amaiera aldean alokutibo marka soilik txertatzen baitzaie.

Trinkoetan, berriz, Zulaikak aipatzen duen bezala (1998: 601-602), Leizarragak baliatutako forma trinkoetan d- → z- transformazioa gertatzen da, hain zuzen, *-io- eta *jakin* erroko adizkietan: dio → *zioat*; dio → *ziok*; dakit → *zeakiat/zeakinat*; daki → *zeakik*... Baina -e- ere tartekatzen da z- -ren ondoren *jakin* adizkietan. Gainerako trinkoetan *d*- gordetzen da, *d*-z hasten badira: *diabiltzak, diagotak, diatzak, diariok, dihoak, diraunsak, diakusat*... Gainera, dV- → dyV- prozesua gertatzen dela ere ikus daiteke, baita dr- → dir- (draunsa → *diraunsak*), nV- → nyV- (nago → *niagok*) eta gV- → gyV- (gaude(z) → *giaudek*) ere, CV- → CyV-, alegia. Zulaikak azaltzen duenez (1998: 603), zenbaiten esanetan, badirudi nolabaiteko lotura dagoela d- → z- transformazioaren eta -y-*ren* tartekatzearen artean. Baina Leizarragaren molde batzuetan -y- irristariaren tartekatzea d- → z- gertatzen ez denean ere jazo daiteke (*diatzak, diariok, dihoak*...). Dena den, *jakin* erroko adizkien inguruan zalantzak dituztela aipatzen du Zulaikak; izan ere, hasierako kontsonantearen bilakaeraz kanpo, -y- irristaria bitan bakarrik tartekatzen da, hain zuzen, *ziakie* eta *niakian* kasuetan. Lehenengo horren *zeakie* aldaeraren parekoak dira gainerako guztiak Zulaikaren hitzetan (1998: 603), hots, -e-*dunak* (*zeakiat/zeakinat, zeakizkiat, zeakik*...). Eta arazoa, Zulaikaren ustez, -e-

horretan datza; izan ere, *jakin* aditzaren ez alokutibozko zenbaitetan ere *-e-* ageri da: *zakian*, *zeakian*; *zakiten*, *zeakiten*; *zakizkian*, *ze(a)kiakian*; *-laki-*, *-le(a)ki*. Beraz, Zulaikaren hitzetan ezin har daiteke alokutiboaren ezaugarritzat. Horrenbestez, *niakian*, *ziakie* adizkietako *-y-* irristaria alokutiboaren marka izan beharrean *-e-*ren aldaera ote den iradokitzen du.

3.3. Etxeberri Ziburukoa

3.3.1. Adizki laguntzaileak

3.3.1.1. NOR saileko adizkiak

naiz → *nauk*, *niauk*, ‘nauk’.

da → *duk*, ‘duk’.

ez da → *eztuk*, ‘ez duk’

dira → *dituk*, ‘dituk’.

nintzen → *ninduen*, ‘ninduan’.

zen → *uen*, ‘zuan’.

3.3.1.2. NOR NORI saileko adizkiak

natzaio → *niatzaio*, ‘natzaio’.

3.3.1.3. NOR NORK saileko adizkiak

3.3.1.3.1. *edun adizkiak

dut → *diat*, ‘diat’.

eztuket → *eztikeat*.

du → *dik*, ‘dik’.

(ez du) → *eztik*, ‘ez dik’.

luke → *likek*, ‘lukek’.

ditu → *ditik*, *tik*, ‘ditik’.

(dute) → *die*, *ditek*, ‘ditek’.

nuen → *nien*, ‘nian’.

nituen → *nitien*, ‘nitian’.

zuen → *zien*, ‘zian’.

ez zuen → *etzien*, ‘ez zian’.

zuten → *ziteen*, ‘zitean’.

zituen → *zitian*, ‘zitian’.

3.3.1.3.2. *iron adizkiak

diro → *zirok*, ‘zezakek’.

3.3.1.4. NOR NORI NORK saileko adizkiak

3.3.1.4.1. -i- adizkiak

diot → *zioat*, ‘zioat’

(ez diot) → *etzioat*, ‘ez zioat’.

(ez diotzat) → *ziotzaat*, ‘zizkioat’.

3.3.1.4.2. *ezan adizkiak

diezeke → *ziezekek* ‘ziezaiekek’.

3.3.2. Adizki trinkoak

EGON:

gaude(z) → *giaudezek*, ‘gaudek’.

daudez → *ziaudezek*, ‘zaudek’.

dagozte → *ziagoztek*, ‘zagozkiek’.

IBILI:

dabil → *ziabilak*, ‘zabilek’.

EDUKI:

dadutza → *ziadutzak*, ‘zauzkaak’.

*-IDI-:

dadike edo daidike → *ziadikek*².

3.3.3. Etxeberri Ziburukoaren adizki alokutiboetan gertatzen diren transformazioak

Altunaren *Manual Devotioezcoa*-ren edizioan (1981) aurkitu ditugun (eta Altunak berak gehienetan oin-oharrearaz azaltzen dituen) adizki laguntzaileetatik N sailean aurreko autoreetan agertutakoa errepikatzen da hemen ere, N → NN transformazioa, alegia (da → *duk*, dira → *dituk*...). Baina aldaera batek N → NN transformazioa gertatzeaz gain, -y- ere txertatu dela erakusten du: naiz → *nauk*, *niauk*. Ikus daitekeenez, bi aldaerak daude, -y- gabea eta -y- duna. Baliteke beste aditz sailetan gertatzen diren transformazioen analogiaren

² Batueraz dagike → *zagikek* litzatekeena, baina *-idi- elementuaren bidez.

ondorioz gertatu izana, eta -y- horrek izaera birkarakterizatzailea izatea. Hau da, Leizarragaren zenbait kasutan agertu den bezala, baliteke Etxeberri Ziburukoa $N \rightarrow NN$ transformazioarekin pozik ez geratzea, eta ondorioz, $CV- \rightarrow CyV-$ ere aplikatzea.

NNi sailekoetatik, berriz, adizki bakarra topatu dugu (natzaio \rightarrow *niatzaiok*) Etxeberri Ziburukoaren testuan, eta bertan $nV- \rightarrow nyV-$, hau da, $CV- \rightarrow CyV-$ transformazioa lekukotzen da, entzuleari dagokion marka adizkiari gehitzeaz gain.

NN sailean adizki alokutibo gehiago aurkitu ditugu aurreko sailetan baino, eta horietan Leizarragaren adizkietan nahiz Etxeparerenetan ikusitakoa errepikatzen da, hain zuzen, errozko -u- \rightarrow -i- transformazioa (dut \rightarrow *diat*, etabar) **edun* adizkietan. Hirugarren pertsona pluraleko ergatiboaren pluralgilea Etxepareren eta Leizarragaren adizkietan ikusi dugun bezala hemen ere ergatiboko hirugarren pertsonako -e pluralgiledun aldaera eta marka alokutiborik gabea (*die*) ageri da, baina baita aldaera berria eta erregularra dirudien *ditek* ere, hau da, ergatiboko -te pluralgilea izateaz gainera, gizonezko entzuleari dagokion -k marka ere bai baitu.

Horretaz gain, NN zenbait adizkitan *Rui* erregela gertatu da; izan ere, erroko -i-k eraginda gizonezko entzulearen morfema den -a- \rightarrow -e- ra asimilatu dela baitirudi. Hori gertatu bide da ondoko adizkietan: *etzien*, *zitian*, *zien*, *nien*, *ziteen* eta *nitien*.

Bestalde, **iron* adizkiaz osatutako eratorpen bat ere jaso dugu: diro \rightarrow *zirok*. Horretan d- \rightarrow z- transformazioa lekukotzen zaigu.

NNN sailean, berriz, Leizarragaren **eradun* eta **ezan* adizkietan gertatu ez den transformazioa ikusten dugu Etxeberri Ziburukoaren -i- nahiz **ezan* adizkietan, d- \rightarrow z- eraldaketa azaltzen baita (diot \rightarrow *zioat*, diezeke \rightarrow *ziezekek*). Leizarragak d- gordetzen du **eradun* adizkietarako (draukat \rightarrow *diarokat*), eta **ezan* adizkiak NN-ekoak soilik dira, baina horietan azaldu dugu d- \rightarrow z- transformazioa gertatu dela, nahiz eta alokutiboko adizki batek z-dun eta d-dun aldaerak izan.

Adizki trinkoei dagokienez, ia guztietan bi prozesu gertatu direla esango genuke, bata bestearen indargarri edo birkarakterizatzaile: $CV- \rightarrow CyV-$, batetik, eta d- \rightarrow z-, bestetik. Prozesu horien lekuko lirateke honakoak: daudez \rightarrow *ziaudezek*, dabil \rightarrow *ziabilak*, dadutza \rightarrow *ziadutzak*, dadike edo daidike \rightarrow *ziadikek*. D-z hasten ez denean, berriz, $gV- \rightarrow gyV-$ (gaude(z) \rightarrow *giaudezek*) prozesua ikusten dugu *egon* adizkian, $CV- \rightarrow CyV-$ patroio orokorra, alegia.

3.4. *Kadet eta Bettiriño*

3.4.1. *Adizki laguntzaileak*

3.4.1.1. NOR saileko adizkiak

niz, naiz → *nauk*, ‘nauk’.
da → *duk*, ‘duk’.
zen → *zuian*, *zukan*, ‘zuan’.
(ez zuan) → *etzuian*, ‘ez zuan’.
gira(de) → *gituk*, ‘gaituk’.
ginen → *ginituian*, ‘gintuan’.
dira → *dituk*, ‘dituk’.
ziren → *zituian* ‘zitian’.
(baziren) → *bazituian*, ‘bazitian’.

3.4.1.2. NOR NORI saileko adizkiak

zaut → *zautak*, ‘zaidak’.
(ez zako) → *etzakok*, ‘ez zaiok’.
zitzaion → *zitzakoian*, ‘zitzaioan’.
zitzaien → *zitzaieian*, ‘zitzaiean’.
zitzaizkion, baitzaizkion → *zaizkioian*, *zazkoian*, *zitzazkioian*, ‘zitzaizkioan’.
(zitzaizkioten) → *zitzazkiotean*, ‘zitzaizkiean’.

3.4.1.3. NOR NORK saileko adizkiak

dut → *diat*, ‘diat’.
du → *dik*, ‘dik’.
ditu → *ditik*, ‘ditik’.
dugu → *diguk*, ‘diagu’.
ditugu → *ditiguk*, ‘ditiagu’.
dute → *die*, ‘ditek’.
dituzte → *ditie*, ‘ditiztek’.
nuena → *nian*, ‘nian’.
zuen → *zian*, ‘zian’.
zituen, zituien → *zitian*, ‘zitian’.
zuten → *zitean*, *ziteian*, ‘zitean’.
zituzten → *zitiztean*, ‘zitiztean’.

3.4.1.4. NOR NORI NORK saileko adizkiak

(daizkit, dauzkit) → *daizkidak, dauzkidak*, ‘zizkidak’.

daie → *daiek, diaiek*, ‘ziek’.

(etzautate) → *etzautaie*, ‘ez zidatek’.

(etzaukute) → *etzaukuie*, ‘ez zigutek’.

zion, zakon, zangon → *zakoian, zangoian*, ‘zioan’.

(zaien) → *zaiean, zaieian*, ‘zieran’.

(zaieten) → *zaietean*, ‘zietean’.

zaingon → *zaingoian, zaizkoian*, ‘zizkioan’.

zaizten → *zaiztean*, ‘zizkiean’.

(zaizkoten) → *zaizkoteian*, ‘zizkiotean’.

3.4.2. Adizki trinkoak

*-IO-:

dio → *ziok*, ‘ziok’.

diote → *ziotek*, ‘ziotek’.

diot → *zioiat*, ‘zioat’.

EGON:

dago → *diagok*, ‘zagok’.

IBILI:

(dabiltza) → *dabiltzak*, ‘zabiltzak’.

JOAN:

(dohaz, duhaz) → *badazik*, ‘bazoazak’.

ERAMAN:

(baderama) → *baderamak*, ‘bazaramak’.

JAKIN:

(etzakit) → *etzakiat*, ‘ez zakiat’.

3.4.3. Kadet eta Bettiriño-ko adizki alokutiboetan gertatzen diren transformazioak

Orain arteko N saileko adizki alokutiboetako joera errepikatzen da *K&B*-ren egilearen hizkeran ere, N → NN transformazioa (niz, naiz → *nauk*, da → *duk...*), alegia, batzuetan forma ez-eratorririk ez badugu ere. Gainerakoan, testua baxe-nafarreraz idatzia izanik, euskalki horri dagozkion aldaera fonetikoak antzeman daitezke: *zuian, zukan, etzuian, zituian*

eta *bazituian*. Dena den, horien artetik *zukan* formak *-a-* alomorfoa desagertu dela erakusten du, *-k* hitz erdira zabaldu delako. Patroi hori zabaldua da, gaur, erdialdeko leku askotan.

NNi saileko adizki alokutiboei dagokienez, oro har harturik, eta nahiz eta forma ez-eratorri batzuk falta, transformaziorik gertatzen ez dela esan dezakegu, hi gizonezko entzuleari dagokion *-k* marka orainaldiko adizkien azkenean txertatzea baita eratorpenean gertatzen den aldaketa bakarra (*zaut* → *zautak*). Lehenaldiko adizkietan gauza bera, baina *-a-* txertatzen da lehenaldiko *-n-*aren aurretik (*zitsaion* → *zitzakoian*). Beraz, ez da Etxeberri Ziburukoaren adibide bakarrean nahiz Leizarragaren adizkietan lehen silaban tartekatzen den *-y-*rik ageri. Dena den, aipagarri da aldaera alokutibo bat baino gehiago daudela zenbaitetan batuko adiera bakarrerako: *zaizkok* eta *zaizkio* aldaerak batuko ‘zaizkio’-erako, nahiz eta aldakortasun horiek ez duten zerikusirik alokutibotasunaren arazoarekin, 3. pertsona sg.eko datiboko markarekin baizik: *-ko* zaharra da, *-ki-* eta *-o* berriak, eta analogiaren bidez azaltzen dira. *Zaizkioian*, *zazkioian* eta *zitzazkioian* aldaerak ere batuko ‘zitzazkioian’-erako daude. Horietan guztietan *-z-* eta *-zki-* pluralgileak dira txandaka dabiltzanak, *-z-*dun aldaerak zaharrago izanik. *-z-*dun aldaeretan ere datibo morfema *-ko* da *-o-* beharrean, eta *-ko* hori ere zaharrago da esan bezala. Bestalde, *zi-*rekin hasten diren adizkiak (*zitzazkioian*, *zitzakoian*, *zitzazkioian* eta *zitzazkiotean*) *za-* edo *zai-* hasten direnek baino itxura berriagoa dute, batzuk lehenengo aipaturiko hasiera horidun aldaerarik ez badute ere. Berriago izatearekin bat dator gainera, *zitzazkiotean* adizkiak *zi-* hasiera eta *-zki-* pluralgilea izateaz gain, *-o-* datiboari *-te* pluralgilea erantsita osatzen den pluralgilearen berrikuntza ere izatea. Dena den, gorago aipatu bezala, eratorpenak osorik ikusi ahal izan ditugunetan ez dute aldaerek transformaziorik agerian utzi, eta hori da benetan guri dagokigun auzia.

NN sailari dagokionez, aurreko autoreen adizkietan bezala errozko *-u-* → *-i-* transformazioa jazotzen da hemen ere (*ditu* → *ditik*, esaterako) eta *die* eta *ditie* ergatiboko *-e* pluralgiledun eta alokutibo markarik gabeak ere ageri dira. Dena den, bada berrikuntzarik. Izan ere, Padillaren hitzetan (2011: 238), forma alokutibo berria da *diguk*, eta hala dio: “hiztunak, solaskidearekiko erreferentzia *-a-* marka galdurik, hasten da *-k* eransten: *diagu* → *diaguk* → *diguk*. Testuan, alta, bada *diat*”. Hori horrela, *ditiguk* adizkiak ere bilakaera berbera izan duela esango genuke, hau da, *ditiagu* → *ditiaguk* → *ditiguk*, eta hori ere berria dela, hortaz. Ros-ek ere bilakabide hori adierazten du (1986: 12) modu honetara: N (Ni) **Na** (Nk) → N (Ni) **Na** (Nk) **Na** → N (Ni) (Nk) **Na**.

NNN saileko adizkietarako, berriz, Manu Padillak dakartzan adizki alokutiboetatik gutxik dute forma ez-eratorria, beti ere Padillak bere edizioan aipatzen dituenak kontuan hartuta, eta beraz, ezin eratorpena argiki zein den ikusi. Dena den, sail honetan azpimarratuko

genuke aurrez Nni sailean aipatu duguna, hau da, aldaera alokutibo bat baino gehiago daudela zenbaitetan batuko adiera bakarrerako, eta kasu batean hiru aldaera forma ez-eratorrirako ere (*zion*, *zakon*, *zangon*). Tamalez, lau dira forma ez-eratorria eta eratorpen alokutiboa ikusteko aukera ematen dutenak, eta horietan zer gertatu den azaltzen ahaleginduko gara.

Daie → *daiek*, *diaiek* eratorpenek erakusten dute ez dela *d-* → *z-* transformazioa gertatu, edo beste era batera esanda, *d-*ri eutsi zaiola bietan, baita aditzaren azkenean mintzalagunari dagokion marka (*-k*) erantsi zaiela ere, nahiz eta bigarren aldaeran lehen silaban *-y-* ere txertatu den, hots, prozesu orokorra den *CV-* → *CyV-* transformazioa, lehenengo aldaeran ez bezala. *Zion*, *zakon* eta *zangon* forma ez-eratorriei begiratzen badiegu, berriz, horietatik bi aldaera alokutibo eratorri dira, azkeneko bietatik, hain zuzen, *zakoian* eta *zangoian*, horiek gizonezko entzuleari dagokion *-a-* marka baitute desberdin forma ez-alokutiboarekin alderaturik. Ez dakigu *zion* forma ez-eratorriak ez ote duen eratorpen alokutiborik edo kasualitatez ez zuen erabili testuan, benetan agertzen ez bada. Dena den, aipa daiteke *zion* forma ez-eratorriaren erroa *-i-* dela, eta beste forma ez-eratorri nahiz eratorriena, ostera, **eradun* dela Padillak agertzen duenez (2011: 73). Hori bai, ez dakigu **eradun*-ek zein eratorpen izan duen adizki horietan, edo Padillak non topatu duen adizki horren aztarna horren alde egiteko, eta ez **-i-* erroaren alde.

Gainerako forma ez-eratorri eta forma alokutiboei dagokienez, horien artean ikusten den aldea entzulearen marka agertzean besterik ez dago. Hala ere, ekintzaren argumentu bereko bi aldaera alokutibo diren *zaingoian* eta *zaizkoian* adizkiek N pluralgilea ere desberdina dute. Padillak adierazten duenez (2011: 63), *zaingon* eta *zaingoian* adizkietan dagoen *-i-* -k N-eko pluralgile funtzioa du, berriz *zaizkoian* adizkiak *-z-* pluralgilea du. Bestalde, datibo morfemarako ere *-ko-* du batek, *-go-* besteak *-n-* ondoren ahostundurik. Bai *-i-* pluralgilea, bai *-go-* datibo morfema berrikuntzaren adierazle dira.

Gainerakoan, forma ez-eratorria falta zaien adizkiak ditugu. Horien artean bi eratorpen alokutibotan, *etzautai* eta *etzaukuie*, adizkietan hain zuzen, aurrez aipaturiko hirugarren pertsona pluraleko ergatiboko *-e* pluralgilea ageri da gizonezko entzuleari dagokion markarik gabe. Horiek zaharrak dirudite *zaizkoteian* itxuraz berriagoa den beste adizki alokutiboaren ondoan, horretan hirugarren pertsona pluraleko ergatiboko pluralgilea *-te* baita. Bestalde, ‘zizkidak’ forma baturako bi aldaera alokutibo ikus ditzakegu, *daizkidak* eta *dauzkidak*. Padillaren arabera (2011: 73) bi aldaera horiek **eradun* erroa dute. Hori horrela izanik, bi aldaera horien aldea Padillak berak aipatzen duen (2011: 63-64) N plurala markatzeko hainbat adizkietan agertzen den *-i-* pluralgilearen presentzia izan daiteke, Lapurdiko ekialdean eta egun Hazparnen ere hainbat adizkietan agertzen dena. Hori kontuan

harturik, *daizkidak* formak *-i-* plural berria luke zaharragoa den *-z-* pluralgileaz gain, eta *dauzkidak* aldaera zaharragoa litzateke *-z-* pluralgilea soilik izatean.

Azkenik *K&B*-ko adizki trinkoei erreparatzea falta zaigu. Hauetan ere gehienetan forma ez-eratorriak falta zaizkigu eratorpena nola izan den ziur azaltzeko. Eratorpena ikusteko aukera ematen dutenetatik **-io-* errokoak dira argienak, hiru kasu utzi baitituzte: *dio* → *ziok*, *diote* → *ziotek* eta *diot* → *zioiat*. Hirurek erakusten dute eta jarraitzen diote Leizarragaren adizkietan ikusi den transformazio berberari, hau da, *d-* → *z-* transformazioari; izan ere, haren egitura fonotaktikoaren ondorioz, **-io-* aditzean ezinezkoa litzateke *CV-* → *CyV-* transformazioa aplikatzea.

Forma neutroa falta bazaigu ere, *jakin* adizkiak utzi duen forma alokutibo bakarrak (*etzakiat*) ere transformazio beraren zantzuak uzten ditu, hau da, *d-* → *z-* transformazioarenak, baldin eta *ez dakit* forma ez alokutibotik eratorri bada. Hori horrela balitz, horretan Etxepareren eta Leizarragaren ildoari jarraituko lioke obra honen egileak. Gainerako adizki trinko alokutiboetan, berriz, ez da *d-* → *z-* transformazioa gertatu, guztiak hasten baitira *d-*rekin.

Bestalde, *d-* gorde duela erakusten duen adibide gardenena dago → *diagok* eratorpena da, forma ez-eratorria ere izanik. Eta horretaz gain, *-y-* ere tartekatu da, hau da, *CV-* → *CyV-* transformazioa izan du *egon* adizkiaren forma alokutibo horrek. Gainerako forma alokutibo guztiak, berriz, lehen silaban *-y-* gabeak dira. Horretan ez die jarraitzen aurreko autoreei, Etxeparerekin agertu ditugun hiru adizki trinko alokutibodunak *-y-* dunak baitira, baita Leizarragaren adizki trinko guztiak ere, alegia, *ikusi*, *ibili*, *etzan*, *jario*, *joan*, *iraun*, *egon* eta *etorri*. **-Io-* eta *jakin* adizkiak lirakeke salbuespen. Etxeberri Ziburukoak ere bildu ahal izan ditugun adizki trinko alokutibo guztietan txertatu du *-y-*. Gogora dezagun Etxeberri Ziburukoaren adizki alokutiboak *eduki*, *egon*, *ibili* eta **idi* errodonak direla.

3.5. Alphonsa Rodriguez...

3.5.1. Adizki laguntzaileak

3.5.1.1. NOR saileko adizkiak

da → *tuk*, ‘duk’.

(*ezta*) → *eztuk*, ‘ez duk’.

3.5.1.2. NOR NORK saileko adizkiak

du, *dia* → *dik*, ‘dik’.

(*dute*) → *die*, ‘ditek’.

dituzte, tuzte → *tie*, ‘ditiztek’.

3.5.2. Alphonsa Rodriguez...-eko adizki alokutiboetan gertatzen diren transformazioak

Ikus daitekeenez, eta Iñaki Caminok aipatzen duen bezala (2013: 122), “hiketako adizkiak bakan dira, sei baizik ez”. Eta sei horietan ez dugu aurreko obretan agertu ez den transformaziorik ikusten, guztiak dira ezagun: N saileko adizki bakarrean $N \rightarrow NN$ transformazioa (da → *tuk*) eta NN sailean errozko -u- → -i- bihurtzea (du → *dik*; dituzte, tuzte → *tie*), nahiz eta hark-hura forma ez-eratorrian *dia* ere baden eta horrek -i- erroa izanik, deigarri da forma ez-eratorrirako. Hainbatetan -a- hi gizonezko entzulearen forma gisa agerturik, forma ez-eratorri eta alokutiboaren arteko tarteko urratsa ez ote izango? Hau da, *di-ga → *dia*. Edo tarteko urratsa beharrean, beste soluzio bat izan daiteke: *di-ga → *dik* arrunta.

Bestalde, aurreko autore edo obretan zehar behin eta berriz aipatu den *die* eta ildo bereko aferesiadun *tie* (*ditie* → *tie*) ere agertzen dira, hau da, hirugarren pertsona ergatiboko -e pluralgilea eta alokutiboaren markarik gabeko adizki alokutiboak.

3.6. Arnaud Oihenart

3.6.1. Adizki laguntzaileak

3.6.1.1. NOR saileko adizkiak

(naiz, niz) → *nun*, ‘naun’.

da → *dun*, ‘dun’.

(eztu) → *eztuk*, *eztun*, ‘ez duk/dun’.

dateke, ‘izango da’ → *dukek*, ‘izango duk’.

naite, ‘naiteke’ → *niaitek*, ‘naitekek’.

(ezkitake) → *ezkitakek*, ‘ez gaitezkek’.

3.6.1.2. NOR NORK saileko adizkiak

dut → *dinat*, ‘dinat’.

(eztut) → *eztinat*, ‘ez dinat’.

du → *dik/din*, ‘dik/dun’.

eztu → *eztik* ‘ez dik’.

3.6.2. Adizki trinkoak

*-IO-:

diot → *zionat*, ‘zionat’.

diotsa → *ziotsak/ziotsan*, ‘ziotsak/ziotsan’.

EKARRI:

dakarke → *diakarkek/diakarken*, ‘zakarrek/zakarren’.

EZAGUTU:

(dazagu) → *diezaguk*, ‘ezagutzen dik’.

EDUKI:

daduka → *diadukan*, ‘zaukan’.

EGON:

nago → *niagon*, ‘nagon’.

3.6.3. Oihenarten adizki alokutiboetan gertatzen diren transformazioak

Oihenartek ere ez du N saileko *izan* adizkietan berrikuntzarik eskaintzen, N → NN transformazioari eusten baitio. Orainaldi eta lehenaldi arruntetik kanpo ere transformazio bera erakusten du dateke → *dukek* eratorpenak. Gaur egun batuan *dukek* zein *datekek*, biak dira zilegi, hau da, N → NN erregularra egitea edo morfologikoki sinpleagoa den marka alokutiboaren txertaketa hutsa aplikatzea. Oihenarti *dukek* soilik topatu badiogu ere, Leizarragk *datek* aldaera ere badakarrenez, hortik nahiz beste aditz molde zenbaiten lekukotasunetatik (*litzateke* → *lukek/n* zein *litzatekek/n*) etorri da batuan biak onartzeko hautua. Ahalerako **edin* erroko eratorpenetan, ez dirudi transformaziorik gertatu denik Oihenarten *ezkitatek* forma alokutiboan, baina naite → *niaitek* eratorpenean nV- → nyV-, hots, CV- → CyV- transformazioa ere lekukotu zaigu. Ziurrenik alokutiboaren birkarakterizazio gisa.

NN saileko aditzetan ere ohiko transformazioa da ikusten duguna, hau da, erroko -u- → -i- bilakatzea, eta aditzaren azkenean, azken hizki gisa edo azken aurrekoaren kokagunean alokutiboko marka azaltzea (*dut* → *dinat*).

Ez dugu NNN saileko adizkirik aurkitu, eta trinkoetan topatu dugunari helduko diogu. **-Io-* erroko adizkiek Leizarragaren adizki alokutiboetatik hasita gainerako autore edo obretan aipatu dugun eratorpenari heltzen diote, d- → z- motako transformazioa (*diot* → *zionat*) gertatzen da, alegia. Gainerako trinkoek ez dute halako transformaziorik; izan ere, ditugun forma alokutiboak *d-z* nahiz *n-z* hasten dira, eta horietan dV- → dyV- (*daduka* → *diadukan*) eta nV- → nyV- (*nago* → *niagon*), hots, CV- → CyV- transformazioa ikus

dezakegu, nahiz eta *diezaguk* forma alokutiboaren forma ez-eratorria falta zaigun; besteen transformazioak ikusirik hor ere transformazio bera gertatu dela dirudi. Beraz, orain arte esan duguna, *-io- adizkietan d- → z- gertatzen bada ere, d-z hasten diren beste trinkoetan dV- → dyV- prozesua lekukotzen da, baina hori agian ez da kasualitatea, baizik eta fonetikoki baldintzatua egon daiteke, hots, di- → zi-, baina dV- (non V ez den i) → dyV-.

Bestalde, aipagarri iruditzen zaigu Oihenart proportzioan emakumezko entzuleari dagokion marka duten lekuko gehien utzi digun autoreak delako. Are, gizonezko entzulearen marka duten adizkiak baino ugariago ere badira emakumezkoarenak. Aurrez ikusi ditugun lan edo obretatik Leizarragari jaso dizkiogu emakumezko entzuleari dagokion marka duten aldaerak, baina gizonezko entzuleri dagokion markadunak nagusi dira haren lanean. Dena den, kontu honetan hainbat faktore daude tartean, esaterako, testuen izaera eta luzera, ez baita berdina TB-n, erlijio-lanetan edo elkarrizketetan eta atsotitzetan eta amodio-poemetan dagoen hi emakume entzulearen agerpenerako aukera. Azken horiek dira bereziki Oihenartekin emakumezko entzuleari dagokion marka duten aldaera alokutibo gehiago agertzearen arrazoia.

4. Ondorioak

Orain arteko datuak kontuan izanik honakoa esan dezakegu aditz laguntzaileetan bereizi ditugun lau sailetan eta aditz trinkoetan gertatzen diren eratorpen alokutiboak buruz:

1/ NOR saila

Izan adizkiak: N → NN transformazioa patroia orokorra da iparraldeko adizki alokutiboetan.

**edin* adizkiak: adizki hauetan ahalerako nahiz subjuntiboko formak jaso ditugu. Leizarragaren ahalerako adizki pare batek CV- → CyV- transformazioa lekukotzen dela erakutsi dute nV- → nyV- (naite → *niaitek*) eta zV- → zyV- (zeiten, zaiten, zaitekeen → *zieitean*) prozesuen bitartez. Gainerakoek, berriz, ez dute transformaziorik jasan (litake, litezke → *litezkek* edo daitezke, ditezke → *daitezkek*).

Leizarragaren subjuntibozko formak ere CV- → CyV- transformazioa utzi du: zV- → zyV- (zedin → *zidian, ziedian*).

Beraz, ahalerazko nahiz subjuntiboko alokutiboko formetan CV- → CyV- transformazioa orokorra da iparraldean, nahiz eta transformaziorik eza ere lekukotzen den.

2/ NOR NORI saila

Izan adizkiak: hiketako forma alokutiboak agertu dizkigun Leizarragak transformazio hauek utzi dizkigu: CV- → CyV- (zaio → *zaiok/ziaion*, gaizkio → *gaiizkiok*), na- → ni-

(natzaio → *nitzaio*), natza- → nitzia- (natzaie → *nitziaiek*), eta gaitzV- → gaitzeV- (gaitzaizte → *gaitzeizte*). Baina transformaziorik gabeko eratorpenak ere bildu ditugu Leizarragarekin: natzaio → *natzaio* eta giaizkio → *giaizkiok*. Azken horren forma ez-eratorriak gainera, lehen kontsonantearen ondoren -y- txertatuta duela ere adierazi dugu CV- → CyV- prozesua oso fase dinamikoan dagoenez.

Etxeberri Ziburukoak ere CV- → CyV- (natzaio → *niatzaio*) transformazioa erakutsi digu, baina *K&B* obrako eratorpenek transformaziorik eza (zaut → *zautak*).

Gauzak horrela, *izan* adizkietan, oro har, ez da transformaziorik lekukotzen batueraz bezala, nahiz eta zenbaitetan CV- → CyV- transformazioa ere agertzen zaigun, Leizarragak dakartzan beste zenbait transformazioez gain. Azken horiek agian NNNeko dir- formekiko analogiaz.

3/ NOR NORK saila

**edun* adizkiak: errozko -u- → -i- transformazioa orokorra da iparraldean, baita erdialdean ere, azken horretan aztertu ez badugu ere. Gainerakoan, Leizarragaren zenbait adizki alokutibotan *d-* gordetzea nahiz *d-* → *z-* transformazio gehigarria duten zenbait aldaera ere ikusi ditugu (*ditiat*, *zitiat*; *ditiagu*, *zitiagu*; *ditik*, *zitik*; *ditie*, *zitie*); beste batzuetan *d-* soilik gorde da (*diat/dinat*, *dik/din*, *diagu/dinagu* eta *die/dine*). Gauzak horrela, *d-* gordetzea zaharra dirudi, eta *d-* → *z-* transformazioak berriagoa. Bestalde, Leizarragaren adizki alokutibo batean (*giaitik*) lehen silaban -y- agertzea CV- → CyV- transformazioaren hedadura eta alokutiboaren birkarakterizaziotzat dugu.

Horretaz gain, hainbat adizkitan (*die* eta *ditie*) alokutibo markaren falta azaldu zaigu gizonezko entzulearen kasuetan eta hirugarren pertsona pluraleko ergatiboaren pluralgilea -e egitea forma alokutiboan, forma ez-eratorrian -te denean (*dute* eta *dituzte*). Ez dakigu zer dela eta gertatzen den alokutibo markaren hutsunea, baina pluralgilearen formak bederen, -e-dun forma alokutiboak forma ez-eratorriak baino zaharragoak direla pentsarazten digu.

**ezan* adizkiak: Leizarragaren **ezan* adizki alokutiboetan **edun*-eko gehienetan ez bezala, *d-* → *z-* transformazioa (*dezake* → *zezakek*) lekukotzen dela aipatu dugu, nahiz eta batek analogiaren eraginez edo *d-dun* aldaera ere baduen (*dezakeagu*, *zezakeagu*). Gainerakoan, iparraldean beste transformaziorik ez dugu.

**iron* adizkiak:

Etxeberri Ziburukoari bildu diogun eratorpen bakarrak *d-* → *z-* transformazioa utzi digu: *diro* → *zirok*.

4/ NOR NORI NORK saila

**eradun* eta *-i-* erroko adizkiak: Leizarragarekin *dr-* → *dir-* (*drauet* → *diraueat*) eta *dr-* → *dia-* (*draukat* → *diarokat*; *draukate* → *diarokoe/diraukoe*) transformazioak lekukotu zaizkigu **eradun* adizkietako forma alokutiboetan. Etxeberri Ziburukoak *d-* → *z-* transformazioa erakutsi digu *-i-* erroko adizki alokutiboetan (*diot* → *zioat*). *K&B* laneko **eradun* adizki alokutiboetan ez dugu transformaziorik atzeman (*zakon*, *zangon* → *zakoian*, *zangoian*) edo *CV-* → *CyV-* transformazioa utzi digu aldaera batek transformaziorik gabekoarekin batera (*daye* → *dayek*, *diayek*).

Beraz, laburbilduz, Leizarragarekin eta *K&B*-rekin *d-* gordetzen da; Etxeberri Ziburukoarekin, berriz, *d-* → *z-* transformazioa gertatzen dela orokor dezakegu, Leizarragaren *dr-* → *dir-* eta *dr-* → *dia-* transformazioez gain.

**ezan* adizkiak: Leizarragaren **ezan* adizkietan ez dugu transformaziorik begiz jo (*niezon* → *niezoan*). Etxeberri Ziburukoak, ostera, *d-* → *z-* transformazioa agertu digu **ezan* adizki alokutiboetan (*diezeke* → *ziezekek*).

5/ Aditz trinkoak

EGON: guztiak ere *CV-* → *CyV-* prozesu orokorraren bidez laburbil daitezke. Izan ere, Etxeparek (*dago* → *diagok*), Leizarragak (*dago* → *dia(g)ok/diagon*) eta *K&B*-ren egileak (*dago* → *diagok*) *dV-* → *dyV-* prozesua utzi digute. Etxeberri Ziburukoarekin, aldiz, *d-z* hasitakoekin *d-* → *z-* (*daudez* → *ziaudezek*) transformazio birkarakterizatzailea ere bereizi dugu. *nV-* → *nyV-* prozesua ere utzi digute agerian Leizarragak (*nago* → *niagok*) eta Oihenartek (*nago* → *niagon*), eta *gV-* → *gyV-* prozesua Leizarragak (*gaude(z)* → *giaudek*) eta Etxeberri Ziburukoak (*gaude(z)* → *giaudezek*).

EDUKI: *egon* adizkien gisan, *CV-* → *CyV-* prozesu orokorrean bil daitezke denak. Izan ere, *dV-* → *dyV-* prozesua ikusi dugu Etxepareren *eztiadukat* forma alokutiboan zein Oihenarten *daduka* → *diadukan* eratorpenean. Etxeberri Ziburukoarekin, ostera, *CV-* → *CyV-* transformazioaz gain, *d-* → *z-* (*dadutza* → *ziadutzak*) transformazio birkarakterizatzailea ere erakutsi dugu.

JAKIN: Etxepareren *baziakiat* forma alokutiborako *dV-* → *zyV-* prozesua gertatu dela iradoki dugu. Leizarragarekin (*daki* → *zeakik*) eta *K&B*-ren egilearekin (*etzakiat*), berriz, *d-* → *z-* transformazioa ere aipatu dugu. Bi kasutan (*ziakie* eta *niakian*) *-y-* tartekaturik egonik ere, *-y-* *-e-* -ren aldaera izan ote daitekeen ere agertu da zenbait forma ez-eratorritan ere *-e-* agertzen denez (*zakian*, *zeakian*). Baina transformazio guztiei begiraturik, *d-* → *z-* orokorra dela esan daiteke.

*-IO-: forma alokutibo guztiek erakutsi digute transformazio bera: $d- \rightarrow z-$. Leizarragak esaterako, $diot \rightarrow zioat$, $K\&B$ obran $dio \rightarrow zio$ eta Oihenartek $diot \rightarrow zionat$ adibideak utzi dizkigute. Transformazio horren arrazoia erroaren lehen segmentua $-i-$ izatean ikusi dugu, lehen segmentu horrek $CV- \rightarrow CyV-$ ez baitu bideragarri egiten.

JOAN: Leizarragak $noa \rightarrow nihoak$, $doa \rightarrow dihoak$ eta $goaz \rightarrow gi(h)oazak$ gisako eratorpenak utzirik $nV- \rightarrow nihV$, $dV- \rightarrow dihV-$ eta $gV- \rightarrow gi(h)V-$ prozesuak ikusten ditugu. $K\&B$ lanean *badazik* azaltzen da, baina forma ez-eratorririk gabe ezin jakin transformaziorik izan den. Gauzak horrela, Leizarraga kontuan izanik, $CV- \rightarrow CyV-$ prozesua orokorra izan zela dirudi.

IBILI: $CV- \rightarrow CyV-$ transformazioa ikusi dugu Leizarragarekin $dV- \rightarrow dyV-$ prozesuaren bidez ($dabiltza \rightarrow diabiltzak$), baita Etxeberri Ziburukoarekin ere $CV- \rightarrow CyV-$ eta $d-z$ hasitakoekin $d- \rightarrow z-$ transformazioak ($dabil \rightarrow ziabilak$) bereizi baditugu ere. $K\&B$ obran ageri den *dabiltzak* formak, berriz, transformaziorik ezaren antza du. Horiek ikusita, $d-$ gordetzea zaharra dirudi, eta $-y-$ ren txertaketa, aldiz, $K\&B$ -ren obraren egilearen hizkera baxe-nafartarra baino erdialderago sortu zen berrikuntza izan daiteke.

*-IDI-: $CV- \rightarrow CyV-$ eta $d- \rightarrow z-$ transformazioak jaso ditugu Etxeberri Ziburukoarekin ($dadike$ edo $daidike \rightarrow ziadikek$). Leizarragarekin, berriz, *ginaidikek* forma alokutiboaren forma ez-eratorria falta zaigu, baina badirudi ez duela transformaziorik jasan.

IKUSI, ETZAN, JARIO, IRAUN, IRITZI eta ETORRI: $CV- \rightarrow CyV-$ prozesu orokorra da nagusi: $dV- \rightarrow dyV-$ ($dakusat \rightarrow diakusat$, $datza \rightarrow diatzak$, $dario \rightarrow diariok$, *diarizteat*) eta $nV- \rightarrow nyV-$ ($natorke \rightarrow niatorkek$) prozesuak ditugu. *Iraun* aditzean, aldiz, $dr- \rightarrow dir-$ ($draunsa \rightarrow diraunsak$) transformazioa gertatzen da **eradun*-en bezala. Leizarragak soilik dakartza aditz hauek.

ERAMAN: $K\&B$ lanean azaldu zaigu forma ez-eratorririk gabe: *baderamak*. Badirudi $da- \rightarrow de-$ transformazioa jasan duela, eta beraz, $d-$ gorde dela euskara batuan ez bezala, horretan *bazeramak* izatean, $d- \rightarrow z-$ transformazioa ere lekukotzen baita.

EKARRI eta EZAGUTU: $CV- \rightarrow CyV-$ transformazioa ikusten da Oihenarten $dakarke \rightarrow diakarkek/diakarken$ eratorpenean, eta *diezaguk* forma alokutiboak ere transformazio beraren zantzua du.

Beraz, orain arteko guztia kontuan izanik, $CV- \rightarrow CyV-$ transformazioa iparraldean prozesu orokorra dela ondoriozta daiteke, NNN sailean, trinkoetan, eta N sailetako **edin* eta NNi sailetako *izan* erroetako zenbaitetan lekukotu baitzaigu. Dena den, prozesu orokor horretatik aurrera gauza asko gertatu dira: $C-$ hori $d-$ bada, orduan $dV- \rightarrow dyV-$, $zV-$ edo

zyV-; aldiz, C- *n-*, *g-*, edo *l-* bada, orduan *n/g/lyV-* edo transformaziorik eza. Esandakoa ondoko taulak biltzen du:

Saila	Transformazioak
NOR	<i>Izan</i> erroa: N → NN * <i>edin</i> erroa: CV- → CyV- edo ezer ez
NOR NORI	<i>Izan</i> erroa: CV- → CyV- iparraldeko euskalki batzuetan edo ezer ez
NOR NORK	* <i>edun</i> erroa: errozko -u- → -i- (d- → z- prozesu birkarakterizatzailea batzuetan) * <i>ezan</i> erroa: d- → z- (salbuespen da <i>d-</i> gordetzea: <i>dezakegu</i> → <i>dezakeagu</i>) * <i>iron</i> erroa: d- → z- (agerpen bakarra)
NOR NORI NORK	-i-/* <i>eradun</i> erroak: CV- → CyV- prozesu orokorra: a) C = d- → dyV-, zV- edo zyV- b) C = n, g edo l- → CyV- edo ezer ez * <i>ezan</i> erroak: ezer ez edo d- → z-
ADITZ TRINKOAK	CV- → CyV- prozesu orokorra: a) C = d- → dyV-, zV- edo zyV- (batzuetan z- bilakatzea ondoko segmentuaren araberakoa; -i- bada, orduan → z-, bestela → dy-) b) C = n, g edo l- → CyV- edo ezer ez

Laburdurak

K&B = *Kadet eta Bettiriño*

LVP = *Linguae vasconum primitiae*

N = NOR

NNi = NOR NORI

NN = NOR NORK

NNN = NOR NORI NORK

TB = *Testamentu Berria*

Erreferentziak

- Alberdi, J., 1995, “The Development of the Basque System of Terms of Address and the Allocutive Conjugation”, *Towards a History of the Basque Language, Current Issues in Linguistic Theory*, 131. Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins, 275-293.
- Altuna, P. (arg.), 1980, *Linguae vasconum primitiae edizio kritikoa*, Bilbao: Mensajero.
- (arg.), 1981, *Manual Devotionezcoa (lehen zatia) (edizio kritikoa)*, Bilbao: Euskaltzaindia eta Mensajero.
- & Mujika, A. (arg.), 2003, *Euskal atsotitzak eta neurtitzak, Proverbes et poesies basques, Proverbios y poesías vascas*, Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.
- Ariztimuño, B., 2013, “Allocutive agreement”, in M. Martínez-Areta (arg.), *Basque and Proto-Basque Language-Internal and Typological Approaches to Linguistic Reconstruction*, Frankfurt am Main: Peter Lang, 397-410.
- Azkarate, M. & Altuna, P., 2001, *Euskal morfologiaren historia*, Donostia: Elkarlanean.
- Camino, I. (arg.), 2013, *Alphonsa Rodriguez Jesusen Compagnhaco aitaren guiristinho perfeccioniaren praticaren pparte bat (1782) edizioa eta azterketa*, Bilbao: Euskaltzaindia eta EHU.
- Lakarra, J.A., 2008, “Aitzineuskararen gramatikanantz (malkar eta osinetan zehar)”, in X. Artiagoitia & J.A. Lakarra (arg.), *Gramatika jaietan Patxi Goenagaren omenez (= ASJU-ren Gehigarriak 51)*, 451-490.
- Padilla, M. (arg.), 2011, *Kadet eta Bettiriño edo Yesu Christo eguiazco Yainco Guizonaren bizia eta heriua laur evanyelista eguiazcuen eta sainduien arabera*, Bilbo: Euskaltzaindia.
- Ros, A., 1986, “Aditz Morfologia Historikorako Ohar Kritikoak: Alokuzioa”, *Enseiucarrean* 2, 4-54.
- Schuchardt, H., 1983, “Baskische Studien I. Über die Entstehung der Bezugsformen des baskischen Zeitworts” *Denkschriften der kaiserlichen Akademie der Wissenschaften*

in Wien XLII: 1-82 (A. Goenagaren itzulpena, 1972, “Sobre la formación de las flexiones de relación del verbo vasco”, *Boletín de los Amigos del País* (separata) XXVIII, San Sebastián: 217-337).

Trask, R.L., 1997, *The history of Basque*, London (e.a.): Routledge.

Zulaika, E., 1998, *Ioanes Leizarragaren aditza*, Donostia: Deustuko Unibertsitatea.

